


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BILTZAR ZIENTIFIKOETAN PARTE
HARTZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA
(2016)**

ATARIKOA

Ikerketa sustatzea eta garatzea da unibertsitateko jardueraren funtsezko ardatzetako bat, eta ikerketa jardueraren elementu garrantzitsua da ikerketa, garapen eta berrikuntza biltzarretan ikerketa horren komunikazio zientifikoa zabaltzea.

Xede horretarako 150.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa kontratuaren barruan, "Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako dibulgazioa" ekintzan, 6.1 lerroan, finantzatutako aurrekontu kredituaren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 21ean onespina eman eta gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak biltzar zientifikoetara joateko laguntzak emateko deialdia argitaratzea erabaki du.

1. oinarria. BILTZAR ZIENTIFIKOETAN PARTE HARTZEAREN HELBURUA

Deialdi honen bidez UPV/EHUko ikertzaileek ikerketa lanetan lortutako emaitzen komunikazio zientifikoa zabaltzea nahi dira estatuan nahiz nazioartean, ikerketa, garapen eta berrikuntza biltzar ospetsuetan txostenak aurkeztuz.

2. oinarria. DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Ezin izango dituzte laguntza hauek eskatu ondorengo egoeretako batean dauden pertsonak:

- 2.1. Epai irmo bidez diru laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izatea.
- 2.2. Diru laguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean ez izatea.
- 2.3. Ebazpen irmo bidez lege honen edo beste lege batzuen arabera diru laguntzak jasotzeko aukera galdu izatea.

3. oinarria. BILTZAR ZIENTIFIKOEN EZAUGARRIAK

Ekitaldi zientifikoetan parte hartzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete behar dira aldi berean:

- a. Ekitaldiek nazioartekoak edo estatukoak izan behar dute, eta Ebaluazio Batzordeak baloratu beharreko garrantzi zientifikoa izango dute.
- b. Txostenak ebaluatu eta hautatuko dituen Batzorde Zientifikoa izango dute.

4. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Laguntza hauek lan lotura motaren baldintzak eta baldintza zehatzak betetzen dituzten ikertzaileek eska ditzakete.:

4.1. UPV/EHUrekiko lan lotura motak:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHUUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUrak atxikita dauden Ikerbasque programako langileak eta irakasle atxikiak; horiek guztiek arduraldi osokoak izan behar dute.
- b. Ondorengo taldeetako langile ez iraunkorrak, UPV/EHUUn gutxienez bi urte daramatenak.

Ondorio horretarako, langile ez iraunkortzat hartuko dira, beste batzuen artean:

- i. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren eta Euskara Errektoreordetzaren deialdi orokorretako prestatzen ari diren ikertzaileak, praktika aldiak daudenak.
- ii. UPV/EHUko deialdietako doktoratu ondokoak, 2016a baino lehenagokoak eta Eusko Jaurlaritzakoak.
- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten ikertzaileak.
- iv. "Obra/zerbitzu" edo " proiektu jakin baten bidez" kontratatutako ikertzaile doktoreak (PIC). Kontratua deialdi batean lortutako ikerketa proiektu batek finantzatuta egongo da eta biltzarreko egonaldia ikerketa proiektuarekin izango du.

4.2. Eskatzaileen baldintza zehatzak:

- a. Ikerketako jardueraren bat egiten ari dela egiaztatzea. Ondorio horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da ikerketako jardueraren bat egiten ari dela:
 - i. UPV/EHUUn bertan burutzen ari den jarduneko proiektu edo ikertalderen batean parte hartzea, UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Eusko Jaurlaritzakoa, Europar Batasunekoak, I+G+B Plan Nazionalekoa edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2015eko Planekoa izan. Eta UPV/EHU denean proiektuaren finantziazioen onuraduna.
 - ii. Aurreko atalean adierazitako deialdietako batean aurkeztu den baina oraindik ebatzi ez den edo, azkenean, onartu ez den ikerketa proiekturako proposamenen batean parte hartzea, 2014. eta 2015. urteetan.
 - iii. UPV/EHUko kontratu zientifikoren batean parte hartzea.
- b. 2015ean modalitate honetako laguntzarik ez jaso izatea.

c. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak finantzatutako Euskal Unibertsitate Sistemako ikertalderen batekoa ez izatea.

5. oinarria. DIRU LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Laguntzen bidez biltzarretan parte hartzeari lotutako izen-emate, bidaia, ostatu eta mantenu gastuak ordainduko dira. Laguntzaren zenbatekoa biltzarra zein herritan izan den kontuan hartuta zehaztuko da.

5.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Estatu espainiarreko herrietan: 800 € eskaerako.
- Europako herrietan: 1.300 € eskaerako.
- Europaz kanpoko herrietan: 1.900 € eskaerako.

5.3. Komunikazio edo txosten bakoitzeko, komunikazioaren edo txostenaren egile ikertzaile batek bakarrik eska dezake laguntza.

5.4. Gehienez, biltzarreko egunak finantzatuko dira, gehi biltzarraren aurretiko bat eta biltzarra amaitu ondorengo beste bat, betiere egin beharreko bidaiak hala justifikatzen badu.

5.5. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-ra arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 5.6. atalean adierazitakoaren arabera ezarritakoa.

5.6. Laguntzen gehienezko zenbatekoak gorabehera (aurreko ataletan adierazitakoak), zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne araudiak zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruz diotenarekin.

5.7. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, betiere, helburu bera badu.

6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Eskaera ikertzaile nagusiak berak egingo du, atxikita dagoen bere sail/institutuko kontseiluaren onespenerekin.

6.2. Eskaeretan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Inprimakia biltzarra hasi baino gutxienez 45 egun lehenago aurkeztu beharko da.
- b. Biltzarraren izaeraren justifikazioa, eskaerari Batzorde Zientifikoaren osaera eta txostenak hautatzeko prozedura erantsiz.
- c. Txostena aurkeztua izateko onspena. Baldin eta eskatzaileak eskaera aurkezteko unean komunikaziorik ez badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du laguntza esleitu ondoren eta bidaia egin aurretik, laguntza jasoko badu behintzat.

- d. Onarturiko txostena.
- e. Dagokion lizentzia ematea, eskaera egin aurretik.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g. Dagokion eskaerarekin batera, eskatzaileak sinatutako zinpeko adierazpen bat aurkeztuko da, 2. oinarrian adierazitako egoeretakoren batean ez dagoela adieraziz.

6.3. Deialdi hau era deszentralizatuan kudeatzen da; hortaz, eskaerak campusetako erregistroetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- Arabako Campusa, Arabako Campuseko errektoreordeari zuzendua.
Izardui Komandantearen kalea, 2. 01005 Gasteiz
- Bizkaiko Campusa: Bizkaiko Campuseko errektoreordeari zuzendua. Ahal dela, eskaera telematikoki egingo da, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:
- <https://lgpx09.lg.ehu.es/vrcbizexp.nsf> ,
- Gipuzkoako Campusa, Gipuzkoako Campuseko errektoreordeari zuzendua. Ahal dela, eskaera telematikoki egingo da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:
<http://lgpx09.lg.ehu.es/vrcgipexp.nsf>

7. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campus bakoitzeko errektoreordeak izendatutako batzordeek egingo dituzte.

7.1. Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Biltzar zientifikoa antolatzen duen elkarte zientifikoaren garrantzia: /50 puntu/.
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera. /50 puntu/

7.2. Finantziarioa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 70 puntu lortu behar ditu gutxienez.

7.3. Baldin eta ezinezkoa gertatzen bada ebaluazio positiboa duten eskaera guztiak finantzatzea, txandakatze irizpidea aplikatuko da, aurreko urteetako biltzarretara joateko laguntzak jaso dituztenak aintzat hartuta, eta lehentasuna izango dute jarduneko ikerketa proiektuetan parte hartzen duten eskatzaileek, baldin eta horien deialdian berariaz onartzen ez bada joan-etorriengatik gastuen finantziarioa.

8. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

8.1. Deialdi honetako modalitateak irekita egongo dira dagokion aurrekontu ekitaldi guztian edo kreditu erabilgarria gastatu arte. Gorabehera hori argitaratu egingo da, guztiek jakin dezaten.

Modalitate bakoitzerako araudiak egungoa ordeztuko duen hurrengo deialdia argitaratu arte egongo dira indarrean.

9. oinarria. DIRU LAGUNTZAK KUDEATUKO DITUZTEN ORGANOAK

Campusetako errektoreordetzek kudeatuko dute deialdi hau.

10. oinarria. ESKAERAK BIDERATU ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

10.1. Eskakerak edozein unetan aurkez daitezke, deialdia indarrean dagoen bitartean, eta 2017an ordezeko deialdi berria argitaratu arte iraungo du. Beraz, 4.1.b.ii oinarrian, 4.2.b oinarrian, jasotako 2016. urtearen aipamena aldatu eta 2017 jarri beharko da, egungo deialdia 2017an indarrean dagoen bitartean.

Era berean, 4.2.a.ii oinarrian agertzen diren 2015. eta 2016. urteen aipamena aldatu eta 2016 eta 2017 jarri beharko da, egungo deialdia 2017an indarrean dagoen bitartean.

Hala ere, laguntzak campusetako errektoreordetzek eman edo ukatuko dituzte zuzenean, eta, beraz, jasotako eskaerei azkar erantzun ahal izango zaie.

10.2. Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko, 7. oinarrian ezarritako irizpideak erabiliko dira. Behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira, jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

11. oinarria. EBAZPENA

11.1. Campusetako errektoreordetza bakoitzean eraturako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdi hau gehienez bi hileko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko tarteko itxiera egunetik hasita. Epe horretan ageriko ebazpenik ematen ez bada, eskaerak ezetsizat joko dira.

11.2. Campusetako errektoreordeen ebazpen nominalaren bidez ikertzaile bakoitzari jakinaraziko zaio eskaera onartu zaion ala ez, eta baiezkotan, zenbateko laguntza emango zaion. Eskatzen badute, ebaluatzeko eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie interesdunei.

11.3. Esleipenaren ebazpenean datu hauek zehaztuko dira laguntza bakoitzerako:

- a. Ikertzaile nagusiaren izen-abizenak.
- b. Ikertzaile nagusiaren saila edo institutua.
- c. Jardueraren izenburua.

11.4. Ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa egin ahal izango da, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta

Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

11.5. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

12. oinarria. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

12.1. Laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, aurkeztutako gastuen justifikazioan oinarrituta.

Ordaintzen den zenbatekoa gehienez diru laguntzaren zenbateko osoa izango da, 5.2. oinarrian ezarritakoaren arabera.

12.2. Gastuen justifikazio gisa, laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira.

- a. Bidaiei dagokienez, bidaia gastuak egiaztatzeko agiri, ontziratze txartel eta tiket originalak eskatuko dira, eta, Internet bidez erositako hegazkin txartelen kasuan, horien faktura edo ordainketa frogagiriak.
- b. Ez dira onartuko ibilgailuen alokatze gastuak.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztasun gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, joan-etorria justifikatzeko.
- d. Gauzatutako ostatu eta mantenu gastuen frogagiriak, herrialde bakoitzaren balio maximoak kontuan izanik.

13. oinarria. SEGIMENDUA

13.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diruz lagundutako eskaeren segimendua egiteko prozedura antolatuko du, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzaren bidez.

13.2. Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzen badira.

14. oinarria. EMAITZEN ZABALKUNTZA ETA USTIAPENA

14.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintza zabaltzeko eta ustiatzeko ekintza orotan ere (parte hartzen den txosten, hitzaldi, biltzar eta ekitaldi zientifiko guztiak), ikertzaileek UPV/EHUko kide direla adierazi beharko dute, baita honen nortasun irudia jarri ere, unibertsitateak ezarritako baldintzetan.

14.2. Ikertzaileek zein erakundetako kide diren adierazteaz gain, eskerrak emateko atalean ikerketa ahalbidetu duen finantziazioa eman duten erakundeen izena ere jarri beharko da.

15. oinarria. DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZEN ALDAKETA

15.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengoak ezar daitezke:

- a. Jarduerara bideratutako aurrekontua murriztea.
- b. Eskatzaileak jasotako laguntza osoa edo zati bat itzultzea.

15.2 Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, ebazpena emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legeari jarraiki. Ebazpena ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio.

15.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntzaren titularrak uko egiten dionean laguntzaren xede den bertaratzeari.
- b. Ekintza berbererako beste iturri batetik diru laguntza jasotzen denean, edo behar bezala justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldezturik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak –batzuk edo bat ere ez– betetzen ez direnean.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko batean baino gehiagotan egozten denean.

16. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztian diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari lotuko zaio; besteak beste, diru laguntzak itzultzeari eta arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko xedapenei.

Aurreko ondorioetarako, diru laguntzei buruzko lege orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla ulertuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUK darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, Errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

- a. Eskatzaileak berak epe luzeago bat jartzea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala eginez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzerantz bidali baino lehen.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Interesdunak deialdiaren, horren oinarrien eta deialditik eratortzen diren administrazio egintzen aurka egin dezake, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legean ezarritako epeen barruan eta forman.

Leioan, 2015eko martxoaren 12an

Fernando Plazaola Muguruza
Ikerketaren arloko errektoreordea